# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### 1990

48/2007 DEKRETUA, martxoaren 20koa, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortzeko eta haren estatutuak onartzeko dekretua laugarrenez aldatzeko dena.

Maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren bitartez, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta haren estatutuak onartzea erabaki zen, eta sozietate horren helburua honako hau da: abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatutako lineetan zein gerora esleitzen zaizkionetan, errepidez eta trenbidez pertsonak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzu publikoa ustiatzea.

Urtarrilaren 25eko 56/1994 Dekretuak aldatu zuen Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta haren estatutuak onartu zituen, eta Euskal Burdinbidearen Museoa sortu eta haren araubidea onartu zuen dekretua; izan ere, 56/1994 Dekretu horren bitartez aipatu sozietateari Euskal Burdinbidearen Museoaren kudeaketa esleitu zitzaion, izan ere, museo horren eginkizunak loturik baitaude trenbideetako jarduerei, eta museo horren helburu soziala aldatzea erabaki zen.

Maiatzaren 28ko 121/2002 Dekretuaren bidez, batetik, Euskal Burdinbidearen Museoa sortu eta haren araubidea onartzeko dekretua aldatu zen, eta, bestetik, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta haren estatutuak onartzeko dekretua bigarrenez aldatu zen. Bada, maiatzaren 28ko 121/2002 Dekretu horrekin aipatu museoaren helburu soziala aldatu egin zen burdinbidearen euskal museoen errealitatera egokitzeko.

Martxoaren 21eko 67/2006 Dekretuak, Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta haren estatutuak onartzeko dekretua hirugarrenez aldatu zuenak, helburu soziala bera aldatzen du, zuzenbide pribatuko Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoa sortu osteko trenbideen sektorearen antolaketa berriari egokitzeko.

Oraingo aldaketarekin sozietatearen zenbait kargu izendatzeko bizkortasun handiagoa eman nahi da, baita beronen araubidea beste sozietate publikoetan dagoenarekin parekatzeko ere.

Horiek horrela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren pro-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### 1990

DECRETO 48/2007, de 20 de marzo, de cuarta modificación del Decreto de creación de la sociedad pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos, S.A. y de aprobación de sus estatutos.

Mediante Decreto 105/1982, de 24 de mayo, se acordó la creación y se aprobaron los Estatutos de la Sociedad Pública «Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A.», cuyo objeto social consiste en la explotación del servicio público de transportes por ferrocarril y carretera de personas y mercancías de las líneas transferidas a la Comunidad Autónoma de Euskadi por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto, y Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, así como aquéllas otras que en el futuro se le encomendasen.

Por Decreto 56/1994, de 25 de enero, de modificación de los Decretos de creación de la Sociedad Pública «Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A.» y de aprobación de sus estatutos y, de creación y régimen del Museo Vasco del Ferrocarril, se atribuyó a la mentada Sociedad la gestión del Museo Vasco del Ferrocarril, en consideración a la interrelación de la actividad ferroviaria con las funciones a prestar por el mismo y se acordó la correspondiente modificación de su objeto social.

Por Decreto 121/2002 de 28 de mayo, de modificación del Decreto de creación y régimen del Museo Vasco del Ferrocarril y de segunda modificación del Decreto de creación de la Sociedad Pública «Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A.» y de aprobación de sus estatutos se modifica el objeto social para adaptarlo a la nueva realidad de los museos vascos de ferrocarril.

El Decreto 67/2006, de 21 de marzo, de tercera modificación del Decreto de creación de la sociedad pública «Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A.» y de aprobación de sus estatutos modifica el objeto social a fin de acomodarlo a la nueva organización del sector ferroviario, tras la creación del Ente Público de Derecho Privado Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea.

Con la modificación que ahora se introduce se pretende dotar de una mayor agilidad al nombramiento de determinados cargos de la sociedad, así como equiparar su régimen al existente en otras sociedades públicas.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y de la Consejera de Trans-

posamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko martxoaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta bere estatutuak onartzeko maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren 9. artikuluaren 1. paragrafoaren d) idatz-zatia honela geratu da:

«d) Kontseilari kopurua, eta hauen izendapena eta kargu-uztea zehaztea.»

*Bigarren artikulua.–* Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoa sortu eta bere estatutuak onartzeko maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren 9. artikuluaren 1. paragrafoaren e) idatz-zatia kendu da.

*Hirugarren artikulua.–* Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren estatutuak barne hartzen dituen eta urtarrilaren 25eko 56/1994 Dekretuak aldatu zuen maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren eranskinaren 11. artikuluari idazkera berria eman zaio eta honela geratu da:

«11. artikulua.– Osaera.

Administrazio Kontseilua gutxienez hiru kidek eta gehienez hamabostek osatuko dute, Batzar Nagusiak erabakitzen duenaren arabera; kideok abenduaren 26ko 25/1983 Legearen bateraezintasunaren eta gainerako arautegi aplikagarriaren pean erori gabeak izango dira, euren karguan lau urterako ariko dira eta behin edo gehiagotan berriz hautatuak izan ahal izango dira, gehienez ere iraupen bererako, Batzarrak bereizketa erabaki ahal izatea eragotzi gabe.

Ez da beharrezkoa izango administratzaileak akziodunak izatea. Administratzaileen izendapenak onartzen denetik izango ditu ondorioak.

Epea amaituta, izendapena hurrengo Batzar Nagusia egitean edo Batzar Nagusia egiteko legezko epea igarotakoan iraungiko da.

Kontseiluak bere baitako lehendakari bat izendatuko du eta lehendakariorde bat edo bi izendatu ahal izango ditu. Era berean, idazkari kargua beteko duen pertsona bat askatasunez izendatuko du, kontseilari ez izatea posible izango da eta Kontseiluaren bileretan hitza izango du baina botorik ez, kontseilari ez bada bederen. Kontseiluak idazkariordeak ere izendatu ahal izango ditu, kontseilari direnak edo ez.»

*Laugarren artikulua.–* Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos SA sozietate publikoaren estatutuak barne hartzen dituen eta urtarrilaren 25eko 56/1994 De-

portes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 20 de marzo de 2007,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* La letra d) del apartado 1 del artículo 9 del Decreto 105/1982, de 24 de mayo, por el que se acuerda la creación de de la sociedad pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A. y se aprueban sus Estatutos, queda redactado del siguiente modo:

«d) Determinación del número de Consejeros, nombramiento y cese de los mismos.»

*Artículo segundo.–* Se suprime la letra e) del apartado 1 del artículo 9 del Decreto 105/1982, de 24 de mayo por el que se acuerda la creación de la sociedad pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A. y se aprueban sus Estatutos.

*Artículo tercero.–* Se da nueva redacción artículo 11 del anexo del Decreto 105/1982, de 24 de mayo, modificado por Decreto 56/1994, de 25 de enero, comprensivo de los Estatutos de la sociedad pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A., que queda redactado como sigue:

«Artículo 11.– Composición.

El Consejo de Administración estará integrado por tres miembros como mínimo y quince como máximo, según determine la Junta General, no incursos en las incompatibilidades de la Ley 25/1983, de 26 de diciembre, y demás normativa aplicable, que desempeñarán su cargo por plazo de cuatro años y podrán ser reelegidos una o más veces, por periodos de igual duración máxima, sin perjuicio de que la Junta pueda acordar en cualquier momento su separación.

No será necesario que los Administradores ostenten la condición de accionistas. El nombramiento de los Administradores surtirá efectos desde el momento de su aceptación.

Vencido el plazo, el nombramiento caducará cuando se haya celebrado la siguiente Junta General o haya transcurrido el término legal para la celebración de la Junta General.

El Consejo nombrará de su seno un Presidente y podrá nombrar uno o dos Vicepresidentes. Así mismo, nombrará libremente a la persona que haya de desempeñar el cargo de Secretario, que podrá no ser Consejero y que asistirá a las reuniones del Consejo con voz y sin voto, salvo que ostente la calidad de Consejero. El Consejo también podrá nombrar Vicesecretarios, que podrán ser o no Consejeros.»

*Artículo cuarto.–* Se da nueva redacción artículo 16 del anexo del Decreto 105/1982, de 24 de mayo, modificado por Decreto 56/1994, de 25 de enero, com-

kretuak aldatu zuen maiatzaren 24ko 105/1982 Dekretuaren eranskinaren 16. artikuluari idazkera berria eman zaio eta honela idatzia geratu da:

«16. artikulua.– Sozietatearen beste organo batzuk.

Batzar Nagusiak ondokoak sortu ahal izango ditu:

a) Administrazio Kontseiluko kideek osatutako kide anitzeko organo bat, Exekuzio Batzorde deitua.

b) Administrazio Kontseiluko partaide diren kide bakarreko organo bat edo gehiago, Kontseilari-Delegatu deitua.

c) Zuzendari nagusi kargua.

Exekuzio Batzordearen edo Kontseilari Delegatuaren kide kopurua Administrazio Kontseiluak zehaztuko du, baita artikulu honetan aurreikusitako organoen titularren izendapena eta kargu-uztea burutu ere; halaber, kide hauei esleitutako zereginen norainokoa ezarriko du, legez salbuetsitakoena izan ezik, eta behar denean eta hala dagokionean, mugen barnean eta Euskal Autonomia Erkidegoko goi karguen ordainsariari buruzko legediari atxikita jasoko dituzten ordainsariak ere finkatuko ditu.»

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu honi aurka egiten dion xedapen oro baliogabetu egiten da.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,
NURIA LÓPEZ DE GUEREÑU ANSOLA.

prensivo de los Estatutos de la sociedad pública Eusko Trenbideak - Ferrocarriles Vascos S.A., que queda redactado como sigue:

«Artículo 16.– Otros órganos de la sociedad.

La Junta General podrá crear:

a) Un órgano colegiado denominado Comisión Ejecutiva compuesta por miembros del consejo de Administración.

b) Uno o varios órganos unipersonales pertenecientes al Consejo de Administración con la denominación de Consejero-Delegado.

c) El cargo de Director General.

La determinación del número de componentes de la Comisión Ejecutiva o de Consejeros Delegados, así como el nombramiento y cese de los titulares de los órganos previstos en este artículo, será efectuado por el Consejo de Administración, que también fijará el alcance de las funciones a ellos encomendadas, salvo las exceptuadas legalmente, y señalará en su caso y cuando así le corresponda, las retribuciones que perciban dentro de los límites y con sujeción a la legislación sobre retribución de Altos Cargos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.»

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada cualquier disposición que se oponga a este Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de marzo de 2007.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Transportes y Obras Públicas,
NURIA LÓPEZ DE GEREÑU ANSOLA.